

4. ikasgaia.

BOTERE JUDIZIAL BAKARRA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK.

1. Eskumen Judizialari buruzko aipamena

1978ko EKaren 149.1/5. art., 1985eko BJLOaren bidez garatua

1978-1985: Autonomia Estatutuak; subrogazio-klausulak.

BJLO aldarrikatzea; haren kontrako konstituziokontarakotasun helegiteak.

Martxoaren 20ko 56/1990ko eta martxoaren 30eko 62/1990ko KAaren epaiak

Justizia-administrazioa eta Justizia-administrazioaren administrazioa:

a) Baliabide pertsonalak:

- Jurisdikzio-langileak
- Gainontzeko funtzionarioak
- Funtzionarioak ez direnak

b) Baliabide materialak

Euskadiko egoera

2. Borete Judizialari eta Autonomia Erkidegoei buruz Konstituzioak berak egindako aipamenak

Konstituzioaren 152.1. art.: Autonomia Erkidegoetako Auzitegi Nagusiak

Mugapen judizialak (EK-aren 152. art.)

Auzialdi prozesalak agortzea (EK-aren 152. art.)

Kasazio-helegitea (Zuzenbide Zibila, Foralaren edo Bereziaren kasuan)

1. JUSTIZIA ESKUMENI BURUZKO AIPAMENA

Aurreko ikasgaietan esan dugu Konstituzioak jurisdikzioaren batasun-printzipioa aldarrikatzen duela, eta printzipio horren berriazko aipamena Francoren erregimenaren garaian gertatutakoaren erantzun edo erreakzioa izan zela, hau da, diktaduran gertatutako independentzia judizialaren urratzeari emandako erantzuna. Printzipio horren arabera, eta kontuan izanez gero subiranotasuna Espainiako herriari dagokiola eta hortik gainontzeko botereak eratoritzen direla, erraz ondoriozta dezakegu Autonomia Erkidegoek ez dutela jurisdikzio-botere berezkorik izango. Hala ere, ikasgai honetan zehar ikusiko dugu jurisdikzioarekin lotutako zenbait eskumen beregana ditzaketela.

Hala, bada, eta beti batasun-printzipioa aintzat hartuta, ikasgai honetan ikusiko dugu Botere Judizialari buruzko eskumena Estatu eta Autonomia Erkidegoen artean nola banatzen den.

Hasteko, **Konstituzioaren 149.1/5. artikulua** aipatu beharra dago, artikulua horretan Estatuak dituen eskumen eskusiboak zerrendatzen baitira, eta “Justizia Administrazioa” multzo horretakoa da. Baina eskumen guztiak, gero, lege baten edo batzuen bidez garatu beharko dira, eta “Justizia Administrazioa” eskumen hori ez zen erabat garatu 1985eko Botere Judizialaren Lege Organikoa aldarrikatu arte geratzen.

Denbora tarte horretan —hau da, Konstituzioaren aldarrikatu zenetik Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldarrikatu bitartean—, Autonomia Erkidegoek beren Autonomia Estatutuak onartu zituzten, eta, haietan, klausula berezi bat —**subrogatze-klausula** deritzona— erantsi zuten (Autonomia Erkidego guztiak, Kantabriakoak, Errioxakoak eta Gaztela-Leongoak izan ezik). Subrogatze-klausula horren bitartez, etorkizunean, Botere Judizialaren Lege Organikoa Estatuaren Gobernuarentzat utziko zuen ahalmenen egikaritzea Autonomia Erkidegoei esleituko zitzaiekeen, hots, ahalmen horiek egikaritzeko gaitasuna eskuratuko zuketean erkidegoak. Une horretan, egikaritze-esparru hori nahiko zabala izango zela pentsatzen zen Autonomia Erkidegoetatik.

Baina, 1985ean, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldarrikatu zen eta Botere Judizialaren eskumenen eremuan izandako itxaropen guztiak zapuztuta zitzaizkien Autonomia Erkidegoei, esparru horretan legea oso murriztailea

baitzen eta, ondorioz, subrogatze-klausularen bitartez pentsatzen zuten baino eskumen gutxiago bereganatu zituzten.

Zapuzte hori jasan eta gero, eta gertatutakoaren hausnarketa eginda, Konstituzio Auzitegira jotzea erabaki zuten; hala, Botere Judizialaren Lege Organikoaren aurkako konstituziokontraotasun hainbat helegite aurkeztu zituzten; bi, hain zuzen ere: bata, Botere Judizialaren Lege Organikoaren kontrakoa eta, bestea, berriz, 1988ko Mugapen eta Zoru Judizialen Legearen kontrakoa, azken lege horrek Autonomia Erkidegoen eskumenak ere mugatzen baitzituen eremu horretan.

Konstituzio Auzitegiak bi epairen bidez ebatzi zituen helegite horiek (**martxoaren 20ko 56/1990 eta martxoaren 30eko 62/1990 epaiak**), eta, haietan, subrogatze-klausulen edukia finkatu zuen.

Konstituzio Auzitegiaren arabera, bi eremu ezberdindu behar ditugu Justizia Administrazioaren eskumenean. Alde batetik, batasun-printzipioarekin lotuta dagoen **Justizia Administrazioaren nukleo ukaezina** (Justizia Administrazioa), beti Estatuaren esku geratuko dena, eta, bestetik, Konstituzio Auzitegiak deituriko **“Justizia Administrazioaren administrazioa”**; eskumen horrek jurisdikzioan funtsezkoak ez diren eginkizunak jasotzen ditu eta, horietan, aldiz, Autonomia Erkidegoek har dezakete parte.

Aipatu berri duguna epaien ardatz nagusia izango da; hala ere, epaien edukiaren barruan honako hau nabarmendu behar genuke:

- Alde batetik, Autonomia Erkidegoek nahitaez onartu behar dute Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako eskumenaren nukleo ukaezina; hau da, Botere Judizialaren Lege Organikoak azaldutako Justizia Administrazioaren administrazioaren eta Justizia Administrazioaren arteko mugak onartu behar dituzte Autonomia Erkidegoek.
- Beste alde batetik, subrogazio-klausularen bitartez, Botere Judizialaren Lege Organikoak Gobernuari emandako eskumenak bakarrik har ditzakete Autonomia Erkidegoek; baina, ikasiko dugunez, Botere Judizialean badago autogobernurako organo bat oso garrantzitsua dena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, hain zuzen. Konstituzio Auzitegiak esan zuenaren arabera, Botere

Judizialaren Kontseilu Nagusiari emandako eskumenak, ordea, beti berarenak izango dira; hau da, Autonomia Erkidegoek ezin izango dute halako eskumenik inoiz hartu.

Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak emandako epai horren emaitza errealitatean nola islatu den ikusiko dugu orain; hau da, emandako azalpen abstraktu horretatik abiatuz, azken finean, Autonomia Erkidegoek zein eskumen bereganatu dituzten, betiere Justizia Administrazioaren baitan egongo direla buruan izanik.

Alde batetik, **baliabide pertsonalak** edo giza baliabideak ditugu, hots, botere judizialean lan egiten duten lagunez osatutako multzoa. Multzo horretan hiru kategoria ditugu:

Lehenengoz, jurisdikzio-langileak ditugu, hau da, ahalmen jurisdikzionala duten langileak, epaile eta magistratuak, —alegia, epaitu eta epaitutakoa betearaz dezaketenak—. Multzo hori eskumenaren nukleo ukaezinean legoke eta, ondorioz, Estatuari dagokio beti.

Bigarrenez, Justizia Administrazioarako lan egiten duten gainontzeko funtzionarioak ditugu (Idazkari judizialak, Auzitegietako Medikak, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboaren taldeko kideak, Izapide Prozesal eta Administratibokoak eta Laguntza Judizialeko taldekoak). Botere Judizialaren Lege Organikoaren arabera, Estatu-talde bakarra osatuko duten arren, Autonomia Erkidegoek haien gaineko eskumena jaso dezakete, betiere Botere Judizialaren Lege Organikoak beren esparruan araututakoa errespetatuz.

Hirugarrenez, lan-pertsonala dugu, Justizia Ministerioak kontratatutako langileak izango dira (adibidez, lan-kontratu arrunten bidez eraikin judizialak garbitzeko kontratatzen diren langileak). Kasu horretan, Autonomia Erkidegoek arazorik gabe har dezakete haiek kontratatzeko eskumena, Justizia Administrazioaren nukleo ukaezinen barruan sartuta egongo ez lirateke eta.

Beste alde batetik, **baliabide materialak** aipatu behar ditugu, esaterako, altzariak erosteko edo eraikin judizialak konpontzeko behar den dirua. Hor subrogazio-klausulak indarra izan du eta, ondorioz, Autonomia Erkidegoek haien gaineko eskumena har dezakete; izan ere, horrela jazo da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan.

Bukatzeko, aipatutako **Euskal Autonomia Erkidegoan** eskumenen inguruan dagoen egoera zein den azalduko dugu. Baliabide pertsonalen ikuspuntutik, Erkidegoak aurretik azalduko hirugarren eta bigarren multzoari buruzko eskumenak bereganatu ditu; baina, hainbat arazo direla eta, idazkari judizialei buruzko transferentzia ez da oraindik burutu. Baliabide materialei begira, lehen esan bezala, baieztatu genezake Erkidegoak arazorik gabe eskuratu dituela horiek.

2. BOTERE JUDIZIAL ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEI BURUZ KONSTITUZIOAK BERAK EGINDAKO AIPAMENAK

Une honetan, eta aurretiaz azaldukoaz gain, Konstituzioaren 152.1. artikulua aipatu behar dugu, haren bigarren zatian bereziki. Jarraitu aurretik, artikulua horren kokapen sistematikoaz jabetu behar dugu: 152. artikulua 151. artikuluekin lotuta dago, eta Konstituzioak autonomia lortzeko aurreikusitako biderik onuragarriena xedatzen zuen azken horrek. Beraz, hasiera batean, Autonomia Erkidegoen talde txiki batek aintzat hartu zuen hor ezarritakoa beren Estatutuak egiteko orduan, Euskadik, Kataluniak, Galiziak eta Andaluziak, hain zuzen (Autonomia Erkidego horei erkidego “historikoak” deitu izan zaie).

Artikulu horren arabera, halako Autonomia Erkidegoek **Auzitegi Nagusi** bat aurreikusi behar zuten beren Autonomia Estatutuetan; hau da, Autonomia Erkidego horiek Auzitegi Nagusia izan behar zuten nahitaez, baina, autonomia lortzeko gainontzeko bideetan, aukerazkoa zen Auzitegi Nagusia izatea edo ez (aurretik esanda dagoen moduan, hementxe ere gogoratu behar dugu Auzitegi Nagusi hori Autonomia Erkidegoan egon arren, Estatuarena dela, hau da, Estatuarekiko harremana baduela). Auzitegi Nagusi horrek Autonomia Erkidegoaren eremuko antolakuntza judizialaz arduratuko da —Konstituzioak berak dioen moduan, Auzitegi Gorenaren jurisdikzioari kalte egin gabe, noski—.

Hala ere, azkenean, Autonomia Estatutu guztiek —Errioxarenak salbu— halako Auzitegi Nagusia aurreikusi zuten, eta, 1985ean, Botere Judizialaren Lege Organikoak Estatuko lurralde osora hedatu zuen betekizun hori; ondorioz,

Auzitegi Nagusi hori izatea nahitaezko bihurtu zuen Autonomia Erkidego guztietan, baita Errioxan ere, bere Estatutuan aurreikusi ez zuen arren.

Era berean, **mugape judizialak** ezartzeko, Autonomia Erkidegoen parte hartzea aurreikusten du Konstituzioaren 152. artikulua horrek. Botere Judizialaren Lege Organikoa aldarrikatu eta Konstituzio Auzitegiaren aipaturako epaiak eman ostean, honako egoera hau geratu zaigu: Autonomia Erkidegoek beren lurraldean barruti judizialak finkatzeko proposamena bidaliko diote Gobernuari, honek kontuan har dezan (BJLOaren 35. art.); barruti judizialen hiriburuak zehazteko eskumenari dagokionez, ordea, Autonomia Erkidegoek eskumen osoa izango dute.

Horrez gain, 152. artikulua **auzialdi prozesalen agortze** edo amaitzeaz mintzatzen da halaber. Artikulu horren arabera, auzialdi prozesalak Autonomia Erkidego berean dauden organoen aurrean agortuko dira. Xedapen horrek zalantzak sor ditzake ea auzialdi horiek Autonomia Erkidegoko organo altuenaren aurrean -hots, Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean- agortu behar diren ez. Galdera horri ezetz erantzun behar zaio izango litzateke, aipaturako artikulua ez baitu auzialdia Auzitegi Nagusiaren aurrean agortzera behartzen; izan ere, oso arrunta izaten da auzialdia Probintzia Entzutegietan agortzea.

Bukatzeko, **kasazio-helegiteari** dagokionez, kontuan hartu behar dugu Autonomia Erkidego batzuek beren zuzenbide zibil propio edo berezia dutela, foru-zuzenbidea; eta hori zuzenbide zibil erkide edo arruntatik ezberdina dela — Euskal Autonomia Erkidegoa edo Nafarroa izango ditugu horren adibide —. Egoera berezi horietan, Auzitegi Nagusiari dagokio Autonomia Erkidego horien kasazio-helegitea ebaztea, baldin eta helegitearen mamia zuzenbide bereziarekin lotuta badago; bestela, hau da, zuzenbide “arrunta” izango balitz, Auzitegi Gorenari legokio.